



**PINK
TONGUE**

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

ZEIN DIRA BEHAR DITUZUEN ELEMENTU GARRANTZITSUENAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?

Gure proiektuan behar izango ditugun eta funtsezkoak diren **baliabide fisikoak** lanerako leku bat, hala nola, laborategi bat, txipak egiteko behar ditugun materialak eta materialaz gain behar ditugun tresnak txipak egiteko izango lirarteke.

Behar izango ditugun baliabide intelektual zein giza baliabideak ondorengoak izango dira: langile eta bazkide guztion sormena, langile batek dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak, eta azkenik, dauzkagun salmentetarako eta antolaketarako abileziak.

Finantza-baliabideeri dagokionez, hasieran, gure aurrizkiak inbertituko ditugu enpresa aurrera ateratzeko asmoz. Gure produktuko unitate bat ekoizteko, 18.26€ beharko ditugu. Kontuan izanda hasieran 100 unitate ekoiztuko ditugula, guztira 1826€ beharko ditugu, soilik ekoizteko. Beste gastu batzuk aurreikusita ditugunez, materiala erostea edota laborategiaren alokairua, alegia, bakoitzak 500€ jarriko genukeen, eta horrela, guztira 2500€ izango genukeen hasieran.